HITZA
Barikua, 2022ko irailaren 16a

Memoria historikoa eta 1945az geroko diktadurak, aztergai

Erasmus+ programaren baitan, memoria historikoa landu dute gazteek Kroazian, eta bertan egon dira Gernika Gogoratuzek aukeratutako seirak



Nere Ibigana, Maria Malexetxebarria, Aitor Zabala eta Garazi Saez proiektuko kideak. ANE MARURI ARANSOLO

–ANE MARURI ARANSOLO

Venues of victims Europako Batasuneko nazioarteko proiektuan parte hartu dute Europako sei herrialdeetako gazteek, Kroazian; tartean Gernika Gogoratuz elkarteak aukeratutako seirek: Maria Malaxetxebarria gernikarrak, Olaia Mujika bermeotarrak, Maitane Urkiaga ondarrutarrak, Garazi Saez eta Aitor Zabala bilbotarrek eta Nere Ibinaga lemoiztarrak. Hamabost eguneko esperientzian, memoria historikoari eta 1945aren ondorengo Europako diktaduren alderdi politiko eta sozialei buruzko tailerretan parte hartu dute.

Hain zuzen ere, *Venues of victims* proiektuaren bigarren faseko jarduera izan da aurtengoa, izan ere, lehenengo fasea 2018an garatu zen. «Lehenengo fasean ere Kroazian batu ziren gazteak, baina gai desberdinak jorratu zituzten. Orduko hartan, lekuz leku joan ziren, eta Kroaziako leku ezberdinetako historia eta memoria historikoa landu zuten. Aurten, baina, Zagreben eta Rijekan egon dira, eta Bigarren Mundu Gerraren osteko Europako erregimen diktatorialak izan dituzte izpide», adierazi du Andreas Schafter Gernika Gogoratuzeko kideak.

Azaldu du ekintza hori hezkuntza eremu ez formaleko Erasmus+ proiektuaren baitan antolatu dutela, beste herrialde batzuekin elkarlanean. «Helburua da beste herrialdeetako gazteekin batera, hainbat gairi buruz hausnartzea eta ikastea».

Saezek azpimarratu du bi asteko esperientzia horretan gerraosteko diktadura horiek abiapuntu hartuta, propagandak bere garaian zuen garrantziari buruz –eta gaur egun duenari buruz– gogoeta egin dutela, «diskurtso popularrekiko pentsamendu kritikoa garatuz». Halaber, tolerantzia eta giza eskubideekiko errespetua mahaigaineratu dituztela dio.

Gehitu du ikaskuntza prozesua hezkuntza ez formalean oinarritu denez, eurentzat «oso prozesu erakargarria» izan dela: «Nazioarteko esperientzia izateak eta beste herrialdeetako jendea ezagutzeak oso aberasgarri bihurtu du egonaldia».

Malaxetxebarriak proiektuaren kulturaniztasuna izan du izpide, eta elkar ezagutzeko ariketa desberdinak egin zituztela gogoratu du: «Herrialde bakoitzeko zazpi gazte batu ginen, eta elkar ezagutzeko ariketa desberdinak egin genituen, kulturaniztasunean aberatsa zen giroa sortzeko». Aitortu du Zagrebeko egonaldian herrialdeko kideekin egoten zirela gehienbat, baina Rijekan nahastu egin zirela. «Beste herrialde batzuetakoekin egindako harremana gero eta garatuagoa zen, eta horrek denok erosoago sentiarazi gintuen».

Arlo ezberdinak

Venus of victims proiektuaren egonaldian, hainbat arlo landu dituzte parte hartzaileek. Tailerretan, emakumeen errealitatea edota memoria historikoa jorratu zituztela adierazi du Malaxetxebarriak: «Zauriak zelan osatu litezkeen landu genuen. Irteera desberdinak ere egin genituen, ikasitakoak garatzeko».

Proiektuaren helburua ez zela bakarrik ikastea diote parte hartzaileek, ikasitakoak barneratzea baizik; horretarako, beste metodo batzuk erabili dituzte antolatzaileek, eta ahalegin hori eskertu dute parte hartzaileek. Hala, egindako irteeren heburua ikasleak testuinguruan sartzea zela azaldu du Zabalak. «Kroazian zer gertatu den ezagutzeko egin genituen irteerak, geunden lekuaren testuingurua ulertzeko».

Kroaziako proiektuko kideek egindako irteera bat. GERNIKA GOGORATUZ

Zagrebeko hirigunea zein kanpoaldea ezagutu zituztela azaldu du, Jasenovaceko oroipen monumentura egindako irteera nabarmenduz. Dioenez, «oso leku hunkigarria» da kontzentrazio esparrua: «Berezitasun bat dauka: hildakoak torturatuta hiltzen zituzten, ez zegoen gas kamerarik. Hil arte torturatzen zituzten, katolizismoaren nagusitasuna erakusteko. Hildakoak ijito ebanjelikoak ziren (horien %96 hil zituzten han), baita serbiar ortodoxoak eta bosniar musulmanak ere».

Behin Reijekan egonda, gehiago mugitu zirela dio Zabalak. Kroaziako kostaldean, «ideologia, gizartea eta legitimizazioa» gaiak jorratu zituzten. Eta, proiektuagaz amaitzeko, Goli Otok irla bisitatu zuten, indarkeriari eta gobernuari buruz berba egiteko. «Irla hauek oso famatuak izan ziren, han preso politikoak zeuden, sobietar batasuna eta estalinismoa defendatzen zutenak, nahiz eta Jugoslavia estatu komunista izan. Irla horietan URSS defendatuz gero, hara bidaltzen zituzten, torturatzeko», azaldu du bilbotarrak.

Egonaldian, elkarregaz lan egin dutela adierazi dute, eta talde bakoitzak bere herrialdean izandako esperientzia historikoa elkarbanatzeko aukera izan zuela gehitu dute. «Gu saiatu gara Frankoren diktadurak bereziki Euskal Herrian izan duen eragina mahaigaineratzen, baita espainiar estatuaren egoera zelakoa izan zen esaten ere. Herrialde bakoitzeko historiari buruzko kronogramak egin genituen, eta euskaldunena deigarriena izan zen», adierazi du Saezek. Malaxetxebarriak azaldu du «deigarriena» iruditu zitzaiela beste herrialdeko partaideei, «Espainiako Estatuan ez zelako sentimendu bera Euskal Herrian edota beste leku batean». Euskal herritarrek jasandako errepresioa azaldu zieten euren kideei, baita Francok euskara debekatu zuela ere. «Francoren diktaduraren berri bazuten, baina ez Euskal Herriko kasuaren berri», azaldu dute.

Memoria eraikitzen

Memoria historikoa eraikitzeak daukan garrantzia «ezinbestekoa» dela adierazi dute: «Beste herrialde batzuetan memoria historikoa asko landu da, baina gurean ez horrenbeste; bidea daukagu egiteko. Historia jakin behar dugu, bestela ezingo dugu memoria historiko bat osatu. Beste herrialde batzuetan diktaduren ondorioak ezabatu zituzten, baina Espainian ez da hori egin. Oraindik ikusi daitezke diktadurari buruzko erreferentziak: El Caudillo izeneko kaleak edota Erorien Harana. Ez zuten ulertzen gaur egungo estatu demokratikoak halako erreferentziak onartzea». Oraindik bide asko dagoela egiteko ohartu dira, eta hori dela proiektuaren funtsa adierazi dute: «Proiektuaren funtsa hori da: ikasi egin behar da zer gertatu zen berriro ez errepikatzeko. Eta, parte hartu dugunoi hori irakatsi gura izan digute. Kritikoak izaten ikasi dugu».